


# ▶ Oinarriak



1. Instagram sare sozialesan Kutxabanken jarraitzaile den edonork har dezake parte lehiaketan. Derrigorrezkoa da adinez nagusia izatea, eta saria banatzen den unean kontuaren jarraitzaile izaten jarraitzea.
2. Parte-hartzaileek argazki edo “pantailazo” bat bidali beharko dute [gazteabbklive@eitb.eus](mailto:gazteabbklive@eitb.eus) helbidera, aipatutako kontuaren jarraitzaile direla egiaztatzeko. Halaber, honako datu hauek ere igorri beharko dituzte: izen-abizenak, helbide elektronikoa eta telefonoa.
3. Sariak. Bilbao BBK Live jaialdirako bi bonu zozkatuko dira parte-hartzaile guztien artean.
4. Lehiaketan parte hartzeko epea ekainaren 16tik uztailaren 4ra bitartean egongo da irekita. Irabazleen izenak hurrengo egunean jakinaraziko dira Gaztea webgunean eta EITB Taldeko sare sozialetan.
5. EITB irabazleekin harremanetan jarriko da. Saria Bilboko egoitzan (Basurtuko Kaputxinoak, 2) jaso beharko da, eta irabazleei argazkiak aterako zaizkie, webgunean eta sare sozialetan argitaratzeko. Horrela, bada, irabazleek EITBren euskarrietan bere nortasuna (izena, herria eta argazkia) zabaltzeko baimena eman beharko dute. Gazteak egun horretan bertan irabazleekin harremanetan jartzetik ez badu, ordezkoeekin jarriko da harremanetan, ordena jarraituz.
6. Emandako datu guztiak fitxategi automatizatu batean sartuko dira; EITBNET, S.A. (EITBNET, Basurtuko Kaputxinoak 2, 48013 Bilbo, Bizkaia) izango da horien erantzule, eta Gaztea-BBK Live lehiaketarako soilik erabiliko dira. Datu horiek EITB Taldearen elkarteei emango zaizkie horiek kudeatu eta Gaztea-BBK Live ekimenarekin lotutako albisteak egin ahal izateko. Datu pertsonalen babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoak ezartzen duenaren arabera, interesdun pertsonak fitxategietako datuekiko oposatze eta eskuratze eskubideak izango dituzte, baita horiek zuzentzeko eta ezeztatzeko ere. Horretarako, sinatutako idazki bat bidali beharko dute gorago aipatutako helbidera.